



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

124. zenbakia

2022ko ekainak 10 – ekainak 23

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Hizkuntzen kaleko erabilera aztertzeke ariketa kolektiboa izan da Euskal Soziolinguistika Jardunaldia

Egun osoko jardunaldia egin dute Bilboko Bizkaia Aretoan, 2021eko Hizkuntzen erabileraren kale neurketak utzitako emaitzak oinarri hartuta. 120 pertsonak parte hartu dute guztira aurtengo Euskal Soziolinguistika Jardunaldian.

Txillardegia-Hausnartu soziolinguistika sarietara lanak aurkezteko epea ireki da

Sarien XV. edizioaren deialdia zabaldu dute Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Irailaren 16ra arte dago aukera hausnarketa eta ikerketa lanak aurkezteko.

Olatz Altuna, Soziolinguistika Klusterra: "Gasteizen eta Araban gazteek egiten dute euskara gehien, beste lurraldeetan ez bezala"

[Euskaraba] Euskararen erabileraren inguruko ikerketa egin duen lantaldeko zuzendari Olatz Altuna elkarrizketatu dugu.

Ikerketak

Joan Mari Torrealdei beka sortu dute, kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzeko

[BERRIA] Joan Mari Torrealdei idazle eta ikerlaria hil eta bi urte eskasera, Usurbilgo Udalak eta Jakin aldizkariak Joan Mari Torrealdei beka aurkeztu dute gaur, Usurbilen bertan. Bi erakundeen arteko hitzarmenarekin, Torrealdaik bere bizitzan landutako esparruak ikertzen jarraitzea bultzatu nahi dute.

Martin Ugalde beka: 2022rako deialdia zabalik

[Martin Ugalde Kultur Parkea] 2022rako beka deialdiaren gaia izango da "Martin Ugalde Orradreren ekarpena Euskal Herriari eta euskal kulturari, berak landutako eremuetako edozein kontuan hartuta".

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Jakin Jardunaldiak, demografiaren bidez zaintza eta hizkuntza aurreikusteko

[JAKIN] Uztailaren 7an eta 8an egingo da VIII. Jakin Jardunaldia Usurbilen, datu demografikoetatik abiatuta zaintzen eta hizkuntzaren auziei erreparatzeko eta UEUren, Usurbilgo Udalaren eta Jakinen lankidetzaren emaitza dira.

Euskal nortasunak XXI. mendean dituen erronkak aztertuko dituzte Udako Ikastaroetan Donostian

[NAIZ] Euskal nortasunak XXI. mendean dituen erronkei buruzko jardunaldiak antolatu dituzte, Donostiako Udako Ikastaroen baitan, EHUK, Telesforo Monzon eLab-ek, Sabino Arana Fundazioak eta Cenarrusa Fundazioak uztailaren 5ean eta 6an.

'Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa Lurraldean' aditu titulua eskainiko dute EHUK eta UEUK datorren ikasturtean, eta zabalik da matrikula egiteko epea

[UEMA] 'Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa Lurraldean' izeneko aditu-titulua prestatu dute EHUK eta UEUK datorren ikasturterako, UEMArekin eta Kontseiluarekin batera, eta dagoeneko zabalik da matrikula egiteko epea, irailaren erdialdera arte.

Minority language protection in the EU and the Right to Speak: Reframing the debate

[Coppieters Foundation] Top experts in the field of diversity management will discuss in Bastia, Corsica, strategies to promote linguistic rights. The goal is to recommend the EU to reflect upon its policies and practices in matter of language promotion and protection.

The 4th International Conference Synergy of Languages and Cultures: Interdisciplinary Studies

[Sant Petersburgoko Unibertsitatea] We are happy to extend this invitation to The Fourth International Conference, The Synergy of Languages and Cultures: Interdisciplinary Studies, to be held on 29 September – 01 October 2022, in an online format.

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Jon Gotzon's syncretic bilingual parody: Pushing the boundaries of 'authentic' Basque

[Language in Society] In this research, I study the way this parody takes advantages of carnivalesque strategies in order to question fixed ideological hierarchies on Basqueness.

Translanguaging in Basque and English: practices and attitudes of university teachers and students

[International Journal of Multilingualism] Whereas previous research in the Basque Country has mainly focused on the implementation of translanguaging pedagogies, in this study we carried out a contrastive analysis of translanguaging practices in English Medium Instruction Education.

Herri gutxituen bidea zabaltzeko ideiak jasotzen ditu Galo Martinez de la Pera bere saiakeran

[NAIZ] Zein da herri ukatu eta baztertuen irtenbidea supergizakiaren garaian? Hori da Galo Martinez de la Pera 'Emearen bidea supergizakiaren aroan' (Alberdania) saiakera liburuan erantzuten saiatzen den galdera, herrigintza eta feminismoa uztartuz.

Indigenous Language Revitalization in British Columbia: Yunešit'in strategies for Nenqayni ch'ih or the Tšilhqot'in language

[EHU] Paula Laita Pallarés Soziolinguistika Klusterreko ikerlari eta teknikariaren tesiak Tšilhqot'in ikasteko eta hizkuntza komunitatean biziberritzeko estrategiak eta baliabideak identifikatzea dauka helburu nagusizat.

Indigenous language revitalization using TEK-nology: how can traditional ecological knowledge (TEK) and technology support intergenerational language transmission?

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] The TEK-nology pilot project demonstrates how community-led, relational technology and immersive Indigenous language acquisition can support ALRR and foster more equitable multicultural and multilingual education.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiak arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Euskal ikasketen hiru katedra berri jarriko ditu Etxepare Euskal Institutuak abian 2022-2023 ikasturtean

[Etxepare Institutua] Nazioarteko hiru unibertsitatetan katedra berriak jarriko ditu abian Etxepare Euskal Institutuak datorren ikasturtean. Elbira Zipitria katedra McGill University-n, Quebecen, Alan R. King katedra University of Wales Trinity Saint David-en, Galesen, eta Frank Bidart katedra California State University Bakersfield-en, AEBetan.



Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

